
Zornotzako Kirol Herri Erakundearen instalakuntzetako zerbitzu arautegia

I. titulua

Xedapen orokorrak

1. artikulua.-

Zornotzako Kirol Herri Erakundea, hemendik aurrera Z.K.H.E. idatziko duguna, arautegi honetako 3. artikuluan aipatzen diren udal kirol instalakuntzak kudeatzen dituen herri organismo autonomoa da, eta bere helburuak, Estatutuen 2. artikuluan agertzen diren honako hauek dira:

- Kirola bultzatzea, eta baita udal kirol instalakuntzen erabilera indartzea eta koordinatzea.
- Bere esku dauden kirol instalakuntzak kontserbatzea, hobetzea eta administratzea.
- Kirol instalakuntzak finantziatzeko lor daitezkeen mota guztietako laguntzak eskuratzeko behar diren gestioak burutzea.

2. artikulua.-

Z.K.H.E.-ren Estatutuak garatzeko, Zuzendaritza Batzordeak Zerbitzu Arautegi hau jartzen du indarrean. Arautegiaren helburua kirol instalakuntzen ihardunbidea eta erabilera arautzea da, eta baita erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak. Hori guztia, Euskal Herriko Kultura Fisikoari eta Kirolari buruzko otsailaren 19ko 5/1988 Legeak markatzen dituen xedapenei edo une bakoitzean indarrean dagoen legediari jarraituz egingo da.

3. artikulua.-

Udal kirol instalakuntzen artean sartzen dira, kirola, iharduera ludikoak eta kultura fisikoa orokorrean egitera bideraturiko Z.K.H.E.-ren eraikin, zelai, egoitza eta lokal guztiak.

Instalakuntza horiek, udalerriko biztanleek eta bertara joan daitekeen beste edonorren erabilerarako sortu dira, kirola, hezkuntza fisikoa eta pertsonaren erabateko garapena bultzatzeko asmoz. Udalerriarentzat ahalik eta ihardunbide eta ekonomia egokiena lortzeko ahalegina ere egingo da, guztia, Herri Erregimenaren Baseak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 eta 85 artikuluek, gai horren inguruan Udalei eskaintzen dizkieten eskumenei jarraituz.

Honako hauek dira Z.K.H.E.ak kudeatzen dituen kirol instalakuntzak, printzipioz arautegi honen arabera ihardungo dutenak:

- Larrako polikiroldegia, futbol zelaia eta atletismo pista barne.
- Amorebieta IV frontoia.
- Eubako frontoia.
- Etxanoko frontoia.
- Ixerbekoa polikiroldegia.
- Ganeko kirol instalakuntzak.

Gainerako kirol instalakuntzek eta etorkizunean udalaren esku egongo direnek ez dute arautegi hau jarraituko, Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordeak horrela erabakitzen duen arte.

4. artikulua.-

Z.K.H.E.-ko zuzendaritza izango da lokalak eta instalakuntzak hiritarren, klubuen, federakuntzen eta gainerako erabiltzaileen artean banatuko dituena. Jendearen arretarako bulegoa Larrako Polikiroldegian egongo da.

5. artikulua.-

Arautegian aurreikusten ez diren kasu guztiei buruzko erabakiak Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordeak hartuko ditu. Horretarako, Arautegi honetan antzeko kasuetarako erabili diren irizpideak erabiltzeko ahalegina egingo da.

6. artikulua.-

Z.K.H.E.-ko Lehendakariari eskumena ematen zaio Arautegi honetan aipatzen diren puntuak garatzeko egoki iruditzen zaizkion erabaki guztiak har ditzan,

zerbitzu hobeia eta instalakuntzen erabilera egokiagoa eskaintzeko. Erabaki horiek ezin izango dira Arautegi honetan aipatzen denaren aurkakoak izan eta Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordeari hartutako erabakien berri eman beharko dio.

II. titulua

Kirol instalakuntzetara sartzeko eta berauek erabiltzeko arau orokorrak

1. atala

Orokortasunak

7. artikulua.-

Kirol instalakuntzetara sartzeko eta erabiltzeko eskubidea dute hurrengo eskaerak betetzen dituzten pertsona, kirol elkarte, legearen arabera osaturiko klub, Federakuntza, ikastetxe publiko edo pribatu edo gainerako elkarte guztiak:

- Berauen helburuen artean hezkuntza fisikoa eta kirola bultzatzea egon beharko dira.
- Kirolean aritzeko asmoa izan behar dute.
- Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordeak ezarritako eta Amorebieta-Etxanoko Udalak berretsitako prezioak ordaindu beharko dituzte, eta
- Arautegi honetan aipatzen diren arauak bete beharko dituzte.

Instalakuntzak, une berezietan, izaera soziala edo kulturala duten zenbait iharduera burutzeko ere erabil daitezke, kasu bakoitzerako ezartzen diren baldintzak betetzen badira eta erabilera horretarako baimena eskuratu bada.

8. artikulua.-

Pertsona edo erakunde bati instalakuntzetara sartzea debekatuko balitzaio, debeku hori, Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordearen erabaki arrazoitua izan beharko da. Erabaki horren aurrean, indarrean dagoen legediaren araberrako errekurtso guztiak ezarri ahal izango dira.

9. artikulua.-

Kirol instalakuntzetara, horretarako prestatu dagoen lekutik, bide publikotik, edo gainerako kirol instalakuntzetatik sartu beharko da.

Edozein instalakuntzara sartu orduko, ezarritako prezioa ordaindu dela egiaztatzen duen tiketa edo sarrera eskuratu beharko da, edo hura izanez gero, urte osoko edo uda sasoiko bazkide txartela. Beharrezko denean, instalakuntzaren erreserba ere eskuratu beharko da.

Debekaturik dago kirol instalakuntzetara edozein motako animaliarik sartzea. Leku berezi bat prestatuko da eguneroko bizimoduan txakurren laguntza behar duten erabiltzaile itsuen txakur-itsuaurrekoak egon daitezen.

Aldi berean, estali gabeko igerilekuen erabiltzaileen aisialdirako Ganeko kirol instalakuntzetan izan ezik, gainerako udal kirol instalakuntzetan guztiz debekaturik dago mahaiak, aulkiak, etzaulkiak, hamakak, haurren kotxeak eta antzerakoak sartzea. Tresna horiek guztiak instalakuntzen sarreran utzi beharko dira, Z.K.H.E.-ko Zuzendaritzak horretarako erabakitako lekuan. Ondorioz, Z.K.H.E.ari ezin izango zaio inolako erantzunkizunik eskatu tresnaren bat lapurtu, galdu edo narriatzen bada, instalakuntzetatik kanpo egongo baitira.

Instalakuntzetako erabiltzaile gutxituek erabiltzen dituzten ibilgailuak Z.K.H.E.-ko Zuzendaritzak horretarako erabakitako lekuan utzi beharko dira, eta instalakuntzetako langileek zainduko dituzte.

10. artikulua.-

Erabiltzaileak izango dira eraikinek, ondasunek eta Z.K.H.E.-ko instalakuntzetan dauden gainerako elementuek, landareak, zuhaitzak, belardiak etab. barne, jasotzen dituzten kalteen arduradunak. Horrela, eragindako kalteak berehala konpondu beharko dira, eta instalakuntzen zainketaz arduratzen diren pertsonen jakinarazi beharko zaie.

Adingabeek eragiten dituzten kalteen erantzule haien gurasoak, tutoreak edo zaintzen dituzten pertsonak izango dira. Gauza bera gertatuko da beraien kabuz ibili ezin daitezkeen pertsonen kasuan.

11. artikulua.-

Oinarrizko urbanizazio eta begiramen arauak bete beharko dituzte, egoitzak baldintza egokietan egon daitezen; hemen azpimarratu egin behar dira paperontziak, komunak, dutxak eta antzerakoak.

Pertsonaren batek Arautegi honetako arauen bat ez duela betetzen ikusten baldin bada, eta arduradunak ez badira horretaz jabetzen, Z.K.H.E.-ko kideei edo emakida duen enpresako langileei jakinarazi beharko zaie berehala.

12. artikulua.-

Horrez gain, bidezko ikusten diren iradokizun guztiak eman ahal izango dira, kirol instalakuntzen ihardunbidea hobetzeko. Zerbitzuari buruzko erreklamazioak ere aurkeztu ahal izango dira Z.K.H.E.aren aurrean. Z.K.H.E.ak erregistro liburu bat izango du, eta bertan, aurkezturiko erreklamazio guztiak bilduko dira, pertsonari, helbideari, egunari eta orduari buruzko datuak eta kexaren edo iradokizunaren azalpen zehatza idatziz.

Kexaren kopia bat Z.K.H.E.-ko Zuzendaritzari bidaliko zaio.

Iradokizunak idatziz aurkeztuko dira, Larrako Polikiroldegian horretarako dauden buzoietan, eta Z.K.H.E.-ko Zuzendari jaun/andereari zuzenduta egongo dira.

13. artikulua.-

Debekatuta dago erabiltzaileak mantenimenduko instalakuntzetara, biltegietara, kontrol bulegora eta kirola egitea debekatuta dagoen eta mantenimendu edo zerbitzuetako langileek bakarrik erabil ditzaketen beste gunee eta lokaletara sartzea.

2. atala

Erabiltzaile guztien eskubideak eta betebeharrak

14. artikulua.-

Zornotzako Kirol Herri Erakundearen erabiltzaile guztiek, abonaturik egon ala ez, honako eskubide hauek dituzte:

a) Zornotzako Kirol Herri Erakundeak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak erabili ahal izango dituzte, kasu bakoitzeko arautegia errespetatuz.

b) Edozein unetan instalakuntzetako langileen edo zerbitzuen arduradunen identifikazioa eska dezakete, bidezkoak liratekeen erreklamazioak egin ahal izateko.

c) Indarrean dagoen legediak eta Arautegi honek ezartzen dituzten beste eskubide guztiak izango dituzte.

15. artikulua.-

Zornotzako Kirol Herri Erakundearen erabiltzaile guztiek, bazkide izan ala ez, honako betebeharrak dituzte:

a) Instalakuntzak erabiltzeko orduan Arautegi honetan ezartzen diren arauak eta instalakuntzetako langileek esandakoa errespetatu beharko dute.

b) Instalakuntzak eta bertako hornidura modu egokian erabili beharko dituzte. Horrela, kontuan izan beharko dute axolagabekeriaren edo atzipearen ondorioz gertaturiko edozein apurketa edo kalte, eragin duen pertsonaren erantzunkizuna izango dela.

c) Instalakuntzetako langileei eman beharko die ihardunbidean dauden akatsen, apurtutako gauzen edo Arautegi honek ezartzen duenaren aurkako beste edozein punturen berri.

d) Beste erabiltzaileen lehentasuneko eskubideak errespetatu beharko dituzte, batez ere aurretik emandako ordutegien erreserbei dagokienean.

e) Erabilera bakoitzerako ezarritako prezioak ordaindu beharko dituzte.

f) Instalakuntzetan behar den bezala arituko dira, eta langileen lana erraztuko dute. Ezinbestekoa izango da langileak errespetatzea eta haiek esandakoa betetzea.

g) Instalakuntzetara sartzeko N.A.N.-a erakutsi beharko dute arduradunak horrela eskatzen dienean.

h) Indarrean dagoen legediak eta Arautegi honek ezartzen dituzten beste eskubide guztiak dituzte.

III. titulua

Erabiltzaile motei dagokiena

1. atala

Sailkapena

16. artikulua.-

Hurrengo maila hauek bereizten dira kirol instalakuntzetan sartzeko eskubidea duten pertsona eta elkarten artean:

- Abonua duten erabiltzaileak, bazkideak.
- Abonurik ez duten erabiltzaileak, bazkide ez direnak.
- Kirol klubak, kirol elkarteak eta kirol federakuntzak.
- Kirol kanpainak-ikastaroak.
- Eskola kirola.

17. artikulua.-

Instalakuntzetara dohainik sartzeko eskubidea honako pertsona hauek baino ez dute izango:

- a) Hiru urtetik beherakoek. Hauek euren gurasoekin, tutorearekin edo hemezortzi urtetik gorako pertsona arduradunarekin sartu beharko dira instalakuntzetan.
- b) Z.K.H.E.-ko langileak eta Z.K.H.E.-ko instalakuntzetan zerbitzua eskaintzen duten emakidetako langileak.
- c) Agintariak, funtzionariak, osasun teknikariak, farmazilariak eta antzerakoak, instalakuntzetara zainketa, kontrol eta laguntza lana egitera doazenean.
- d) Kontsumitzen diren material desberdinen hornitzaileak, komunetarako materiala eramaten dutenak, errekaia ekartzen dutenak eta baita gainerako material edo zerbitzuak hornitzen dituztenak, betiere lan horiek egitera doazenean.
- e) Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordeko kideak, lan hori betetzera doazenean. Kide horiei identifikaziorako kredentziala emango zaie, lana erosoago egin ahal dezaten.

f) Amorebieta-Etxanoko udalerrian erroldaturik egonik, gaian eskumenak dituen erakunde ofizialen batek onarturiko %33ko elbarritasuna duten eta Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordeak horretarako ezarritako gehiengotik beherako diru sarrerak dituzten pertsonak, instalakuntzetako bazkide izatea eskatzen dutenean eta gainerako eskaerak betetzen dituztenean.

Instalakuntzetara sartzeko sarrera ordaindu behar dutenei dohainik sartzen uzten dieten pertsonak zigorrak jasoko dituzte; horrek ez du eraginik izango eska daitezkeen izaera penaleko ardurak eskatzeko orduan.

2. atala

Bazkideei dagokiena

18. artikulua.-

Bazkide dira, izena eman ondoren onartuak izan diren, hori frogatzen duen karneta duten eta kuota guztiak ordaindu dituzten pertsonak.

Bazkideei Zornotzako Kirol Herri Erakundeko Zuzendaritza Batzordeak ezarritako kuotak ordaindu beharko dituzte, urte osokoak edo bigarren seihilabetekoak, bazkide izateko eskaria noiz egiten den kontuan izan gabe.

19. artikulua.-

Bazkideek honako eskubide hauek izango dituzte:

1. Bazkide direla frogatzen duen karneta eman beharko zaie, ordainduriko epe osorako balio duena.
2. Instalakuntzetara dohainik sartu ahal izango dira, bazkide txartela erakutsiz, instalakuntzak jendearentzat irekita dauden ordutegi eta egunetan, eta, betiere, instalakuntzetan ez denean federaturiko klub edo kirolarien arteko ordaindu beharreko kirol lehiaketarik ospatzen.
3. Instalakuntzak (frontoia, squash-a, kantxa estalia, saskibaloia...) erreserbatu ahal izango dituzte, horretarako ezarritako diru kopurua ordainduz, erreserbak aurretiaz eginez.
4. Z.K.H.E.ak antolatzen dituen Kirol Ikastaro guztietan izena eman eta matrikulatu ahal izango dira, tokia dagoenean, eta lehentasuna izango dute bazkide ez diren erabiltzaileen aurrean. Zerbitzu horiek erabiltzeko ezarritako

diru kopurua ordaindu beharko dute, bazkide ez direnek ordaindu beharrekoa baino gutxiago izango bada ere.

5. Instalakuntzetako dutxak, komunak, jantzigelak, etab. erabili ahal izango dituzte, instalakuntzetan bertan edo kanpoan kirolen bat egiten dutenean.

6. Z.K.H.E.ak eskaintzen dituen zerbitzuen Arautegi honen ale bat dohainik jaso ahal izango dute.

20. artikulua.-

1. Bazkideak hurrengo taldeetan banatzen dira:

– Amorebieta-Etxanon erroldaturiko Familia abonua. Familiaren barruan senar-emazteak eta 21 urtetik beherako seme-alabak sartzen dira.

– Amorebieta-Etxanon erroldatu gabeko Familia abonua. Familiaren barruan senar-emazteak eta 21 urtetik beherako seme-alabak sartzen dira.

- Amorebieta-Etxanon erroldaturiko banakako abonua.

- Amorebieta-Etxanon erroldatu gabeko banakako abonua.

- Amorebieta-Etxanon erroldaturiko 15 urtetik beherakoen banakako abonua.

- Amorebieta-Etxanon erroldatu gabeko 15 urtetik beherakoen banakako abonua.

- Amorebieta-Etxanon erroldaturiko gazte txartelaren jabeen banakako abonua.

- Amorebieta-Etxanon erroldatu gabeko gazte txartelaren jabeen banakako abonua.

– Jubilatuentzako abonua (Amorebieta-Etxanon erroldaturikoentzat bakarrik).

– Elbarrientzako abonua (Amorebieta-Etxanon erroldaturikoentzat bakarrik).

2.- Aipatu diren bazkide klase bakoitzaren barruan, honako bi mota hauek egon daitezke:

– Urte osoko bazkideak.

– Uda sasoiko bazkideak. Mota honetako bazkide izango dira urte bakoitzeko bigarren seihilabetekoan egindako abonua guztiak, eta urtea amaitu arte izango dira baliagarri.

3. Klase bakoitzerako tarifak Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordeak onartu eta Amorebieta-Etxanoko Udalak berretsiko ditu, Legeak ezarritako prozedurari jarraituz, eta indarrean jarraituko dute aldatu edo baliogabetu arte.

4. Sailkapenei dagokienez, adinari buruzko erreferentzia hartzeko orduan, abonua egiten duen pertsonak urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean duen adina hartuko da kontuan, eta ez urteko zein sasoiaren betetzen dituen urteak.

5. Bazkide karneta pertsonala eta transferiezina da, eta titularrak baino ezin izango du erabili. Karnetarekin titularra instalakuntzetan sartu ahal izango da, arautegi honetan aurreikusten diren baimenduriko erreserba kasuetan izan ezik.

Bazkide karneta titularra ez den beste pertsonaren batek erabiliko balu, karneta baliorik gabe geratuko litzateke hilabete batez. Horretarako, kontrol eta zainketako langileek N.A.N. edo antzeko agiria eska dezakete.

5.- Amorebieta-Etxanoko udalerrian erroldaturik egonik, Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordeak horretarako ezarritako gehiengotik beherako diru sarrerak dituzten familia unitateetako bazkideek, diru gutxiago ordaindu beharko dute urteko abonua egiterakoan.

Horretarako, urtero, eta prezioen tarifak onartzen direnean, Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordeak lau errenta-modulu ezarriko ditu, familia unitate bateko kide bakoitzaren diru sarreraren arabera, eta bazkideak ordaindu beharko lukeen kuotaren %25eko, %50eko, %75eko edo %100eko beherapenak ezarriko dira, beti ere modulu horietan ezartzen diren diru kopuruera heltzen ez direla frogatzen duten pertsonentzako.

Moduluetan aipatzen diren diru kopuruak kalkulatzeko, P.F.E.Z-ren aitortzeko zerga-oinarri erregularra familia unitatea osatzen duen kide kopuruaren artean bananduko da.

P.F.E.Z-ren aitortzea zertan aurkeztu behar ez duten pertsonak, aitortzea egin behar ez dutela esaten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, eta baita Amorebieta-Etxanoko Udaleko Gizarte

Laguntzaileak emandako agiria. Agiri horretan, beherapen eskaera onartzearen aldeko informazio arrazoitua agertu beharko da.

21. artikulua.-

1. Bazkideek honako betebeharrak hauek dituzte:

– Bazkide karneta erakutsi beharko dute, eta baita N.A.N.-a, pasaportearen edo antzeko agiria instalakuntzetako kontrol eta/edo zainketako langileek hala eskatzen dietenean.

- Arautegi honetako 50. artikuluan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte.

2. Karneta galdu, edo narriatzen badute edo lapurtu egiten badiote, eta ondorioz beste bat eman behar baldin bazaie, karnet neurriko beste argazki bat eman, eta horretarako ezartzen den prezio publikoa ordaindu beharko dute.

3.

a) Z.K.H.E.-ko zerbitzuetako bazkide izateari utzi nahi dion pertsonak Larrako Polikiroldegiko bulegoetan jakinarazi beharko du.

b) Kuota banku helbideratze bitartez ordaindu ondoren Z.K.H.E.-ko zerbitzuetako bazkide izateari utzi nahi dioten pertsonak, ordaindutako dirua itzultzeko eskubidea izango dute, baldin eta eskaria urteko lehen hiruhilabetekoa bete aurretik aurkezten badute eta urte horretan bazkide karneta ez dutela erabili frogatzen badute. Epe hori igaro ondoren ez da inolako diru kopururik itzuliko.

c) Kuota banku helbideratze bitartez ordaindu ondoren Z.K.H.E.-ko zerbitzuetako bazkide izateari utzi nahi dioten uda sasoiko bazkideek, ordaindutako dirua itzultzeko eskubidea izango dute, baldin eta eskaria dirua kobratu zaien egunetik 30 egun igaro aurretik aurkezten badute eta epe horretan bazkide karneta ez dutela erabili frogatzen badute. Epe hori igaro ondoren ez da inolako diru kopururik itzuliko.

3. atala

Bazkide ez diren erabiltzaileei dagokiena

22. artikulua.-

Bazkide izan gabe, horretarako ezarritako diru kopurua ordaindu ondoren, instalakuntzak erabiltzen dituen pertsona fisiko oro abonatu gabeko erabiltzaile da.

Bazkide ez diren erabiltzaileek kirol instalakuntza guztiak erabili ahal izango dituzte, instalakuntzak jendearentzat irekita dauden ordutegi eta egunetan, Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordeak ezarritako prezioa ordaindu ondoren.

Zerbitzu batzuk edo besteak erabiltzeko ordaindu beharreko prezioa desberdina izan daiteke.

Kirol instalakuntzetara sartzeko ordaindu beharreko prezioa ordaindu dutelaren frogagiria emango zaie. Instalakuntzetako langileek frogagiri hori eska dezakete edozein unetan.

23. artikulua.-

a) Bazkide ez diren erabiltzaileak hurrengo taldeetan banatzen dira:

- 18 urtetik beherakoak (neskak/mutilak)

- 18 urtetik gorakoak (helduak)

b) Instalakuntzetara sartzeko ordaindu beharreko diru kopurua desberdina izango da 18 urtetik beherakoentzat eta gorakoentzat.

c) Instalakuntzetako langileek N.A.N.-a edo antzeko agiria eskatzeko eskubidea izango dute, erabiltzailearen adina egiaztatzeko.

d) Erabiltzaileek aurretik ordaindu beharko dute instalakuntza erabiltzeko ordaindu beharreko prezioa. Ondoren beste instalakuntza bat erabili nahi baldin badute, hura erabiltzeko ezarritako prezioa ordaindu beharko dute.

4. atala

Eskola kirolari dagokiona

24. artikulua.-

Z.K.H.E.-ko kirol instalakuntza eta hornidurako parte handia, Amorebieta-Etxanoko ikastetxeetan dagoen falta murriztera bideratuko da.

Eskolako ordutegiaren barruan, kirol instalakuntzak, Amorebieta-Etxanoko ikastetxeetako heziketa fisikoko klaseetarako eta eskola-igeriketarako erabiliko dira batez ere.

Hori dela eta, Amorebieta-Etxanon dauden ikastetxeek, Zornotzako Kirol Herri Erakundeak dituen kirol instalakuntzak erabili ahal izango dituzte, Z.K.H.E.ak ikastetxe bakoitzarekin sinaturiko komenioan aipatzen diren baldintzak betez, eta, beti ere, eskolako ordutegiaren barruan, Ikastetxearen baimen zehatzarekin eta irakasle batek lagunduta. Irakasle hori izango da, hain zuzen ere, ikasleen hezkuntza fisikoaren eta portaeraren arduraduna.

25. artikulua.-

Instalakuntzak ikastetxeen esku uzteko irizpideak eta baldintzak urtero erabakiko dira, irailean, Z.K.H.E.aren eta ikastetxeen interesak kontuan izanik.

Horretarako, kirol iharduerak hasi baino lehen, eta behar den denboraz, klubentzat, kirol elkarteentzat eta federakuntzentzat ezarritako sasoian, Ikastetxeko zuzendaritzak kirolerako ordutegiak eta egunak erreserbatzeko eskaria egingo du, Z.K.H.E.arekin dagoen Komenioan islatuko den akordioa sinatuz. Akordio horrek urte beteko iraupena izango du, eta litekeena da epe horrek luzapenak izatea.

Z.K.H.E.aren instalakuntzak eskola orduetatik kanpoko eskolako kiroleterako ere erabili ahal izango dira. Erabilera horretarako baldintzak urtero erabakiko dira, eskolako kirol kanpaina hasi aurretik.

26. artikulua.-

Eskolako igeriketa bultzatzeko kanpainen kasuan, Z.K.H.E.ak begirale-soroslea eskaini dezake, Zuzendaritza Batzordeak onartzen duen eta aipaturiko Komenioan aipatzen den diru kopurua ordainduz gero. Dena dela, ikasle taldeak instalakuntzetan duen portaeraren ardura, taldea laguntzera datorren irakaslearena izango da.

5. atala

Kirol klubei, elkarteei eta federakuntzei dagokiena.

27. artikulua.-

Pertsona fisikoak kirol klub, elkarte eta federakuntzetan sartu ahal izango dira, eta, legearen arabera osaturik daudenean, talde horiek izango dira lehiaketetan aritzen den kirolariaren ordezkari bakarrak. Ondorioz, kirolari horiek udal kirol instalakuntza hauek erabili ahal izango dituzte, atal honetan aipatzen diren baldintzak errespetatuz.

28. artikulua.-

1. Kirol klubek, elkarteek eta federakuntzek instalakuntzak erabili ahal izango dituzte entrenamenduak, lehiaketak, erakustaldiak, etab. burutzeko, beti ere gainerako erabiltzaileen kirol iharduerak kaltetzen ez dituzten ordutegietan.

Elkarteak kirol klub, elkarte eta federakuntza gisa onartuak izateko, Euskal Herriko Kirol Elkarte eta Federakuntzen Erregistroan eta Z.K.H.E.aren Kluben Erregistroan inskribaturik egon beharko dira.

2. Amorebieta-Etxanoko kirol klubek eta elkarteek lehentasuna izango dute kirol instalakuntzak eta hornidurak erabiltzeko orduan, herrikoak ez diren klubak eta elkarteak aurrean.

3. Kirol klubek eta elkarteek idatziz eskatu beharko diote Zornotzako Kirol Herri Erakundeari instalakuntzak erabiltzeko baimena, entrenamenduak, lehiaketak, norgehiagokak, etab. burutzeko.

Kirol denboraldia hasi baino lehen, behar den denboraz, epea zabalduko da, aipaturiko taldeek erabili nahi dituzten instalakuntzak eska ditzaten. Z.K.H.E.ak erreserba ordutegiak ezarriko ditu, talde guztien interesak ahalik eta gehien errespetatzen saiatuz, kontuan izanik egoitza Amorebieta-Etxanon dutenak lehentasuna izango dutela. Talde horien iharduerak gainerako erabiltzaileek, bazkideek eta bazkide ez direnek, instalakuntzak erabiltzen dituzten orduetatik kanpo burutuko dira.

Instalakuntza erabiltzeko baimena eman ondoren, klubaren eta arduradunaren izena, bete beharreko kirol iharduera, maila eta gutxi gora-beherako erabiltzaile kopurua eman beharko dira, eta baita kirolarien zerrenda, bakoitzaren izena, abizenak eta jaioteguna eta federakuntzak emandako lizentziaren fotokopia; hori guztia kirol instalakuntzak erabiltzen hasi aurretik egin beharko da.

4. Emakidak, aurkezturiko eskarien, instalakuntzetako ordutegien Z.K.H.E.aren zuzendaritzaren irizpide teknikoan arabera emango dira, eta gainerako erabiltzaileak ez kaltetzeko ahalegina egingo da.

Emakida honen iraupena denboraldi batekoa izango da; denboraldi aktiboa, urte bateko irailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30a bitartean luzatzen da.

5. Z.K.H.E.-ko instalakuntzetan entrenatzen diren taldeek lehentasuna izango dute, mailen arabera, lehiaketetako norgehiagokak aurrera eramateko behar dituzten pistak erreserbatzeko orduan.

6. Talde horiei erreserbak emanez gero, baimen bat eman beharko zaio taldea osatzen duen kide bakoitzari (kirolariei, prestatzaileei, direktiboei...), eta baimen horiek pertsonalak eta transferiezinak izango dira. Kirol instalakuntzetara sartzeko baimenak erakutsi beharko dira, N.A.N.-arekin batera.

7. Izaera erregularreko kirol lehiaketa ofizialetarako, kirol klubek eta elkarteek, gutxienez hilabete bateko aurrerapenez baieztatu beharko dituzte euren ordutegiak eta egunak, eta Zuzendaritzak 15 eguneko epea izango du eskaria aztertzeko eta, beharrezkoa balitz, ordutegiak aldatzeko, ezohiko ihardueren ondorioz edo Z.K.H.E.aren irizpide teknikoak direla eta.

8. Entrenamenduetarako erabiltzeko baimena, Z.K.H.E.ak antolaturiko edo baimenduriko ekintzen menpe egongo da, eta ezin izango da inolako erreklamaziorik aurkeztu aurretik baimenduriko entrenamendua bertan behera utzi edo ordutegia aldatu behar denean. Dena dela, horrelakoak gertatuz gero, gutxienez hiru eguneko aurrerapenarekin jakinarazi beharko da.

9. Federaturiko kirolarien portaera zuzena izan beharko da, beti ere langileen lana erraztuz. Derrigorrezkoa izango da langileak errespetatzea eta haiek esandakoa betetzea.

Errespetu faltekin eta portaera desagokiek, zigorrak eragin ditzakete taldean eta taldeko kideengan.

29. artikulua.-

1. Lehiaketa ofizialeko norgehiagoketan, kanpoko taldeko kideak (jokalariak, teknikariak, direktiboak eta laguntzaileak) dohainik sartu ahal izango dira

kirol instalakuntzetan, eta baita norgehiagoka epaituko duten epaileek ere. Horretarako beraien nortasuna frogatu beharko dute. Arduradunak datu horiek horretarako dauden kontrol orrietan idatziko ditu.

2. Kanpoko taldeko edo epaile taldeko kideek bete egin beharko dituzte Z.K.H.E.-ko arautegiaren gainerako puntuak, eta instalakuntzak eta materialak behar bezala erabili beharko dituzte.

6. atala

Ikastaroei, eskolei eta kirol kanpainei dagokiena

30. artikulua.-

Zornotzako Kirol Herri Erakundearen Zuzendaritzak, Zuzendaritza Batzordearen oniritziarekin, erabiltzaileek eskatzen dituzten ikastaro eta/edo kanpainak antolatu ahal izango ditu, eskariak bidegarritasuna bermatzeko bestekoak direnean eta instalakuntzen azpiegitura nahikoa baldin bada ikastaro eta/edo kanpainak eskaintzeko.

31. artikulua.-

Kirol ikastaroak iraupen mugatuko iharduerak izango dira, eta aurretik ezarritako programazioa eta helburuak izango dituzte.

Ezin izango dira erreserbatu ikastaroak izango diren orduetan eta egunetan erabiliko diren instalakuntzak.

32. artikulua.-

Kirol kanpainen iraupena ikasleen eboluzioaren arabera izango da, eta ikasle orok parte hartu ahal izango du, bere maila bat edo bestea izanda ere. Eskariei erantzuteko orduan lehentasuna izango dute denboraldi berean ikastaroan denbora gehiago daramatenek.

33. artikulua.-

Z.K.H.E.ak antolaturiko ikastaro eta kanpainetan, bertan parte hartzeko interesa duen edozein pertsonak eman dezake izena, kuota ordainduz gero. Inskripzioak, horretarako ezartzen den epean egin beharko dira, Larrako Polikiroldegiko harrera bulegoetan.

Ikastaroaren ordainketa hiruhilerokoa edo hilerokoa izango da, ikastaroaren iraupenaren arabera, eta ikastaroa edo kanpaina hasi baino astebete lehenago egin beharko da. Ordaindutako dirua honako kasu hauetan baino ez da itzuliko:

a) Kuotaren %100 itzuliko da ikasleak, idatziz, ikastaroa edo kanpaina hasi baino bost (5) egun lehenagotik ikastaroa edo kanpaina hasi bitartean, klaseetara ez dela joango jakinarazten baldin badu.

b) Kuotaren %75 itzuliko da ikasleak, idatziz, ikastaroa edo kanpaina hasi eta bost (5) egun igaro aurretik, klaseetara ez dela joango jakinarazten baldin badu.

c) Kuotaren %50 itzuliko da ikasleak, idatziz, ikastaroa edo kanpaina hasi eta bost (5) egun igaro ondoren, baina ikastaroaren edo kanpainaren erdia igaro orduko, klaseetara ez dela joango jakinarazten baldin badu.

34. artikulua.-

Bai kirol ihardueren programazioak eta baita iharduera bakoitza emango duen pertsonak, Polikiroldegiko Zuzendaritzak onartu beharko ditu, eta ondoren Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza batzordeak berretsi.

Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordeak, ikastaro edo kanpaina bakoitzerako ordaindu behar den diru kopurua, ikastaroa edo kanpaina burutzeko epea, parte hartzaileen gehieneko eta gutxieneko kopuruak, izena emateko lekuak, etab. erabakiko ditu.

Kasu guztietan lehentasuna izango dute bazkideek egindako erreserbak bazkide ez direnek egindakoen aurrean.

35. artikulua.-

Z.K.H.E.-ko Zuzendaritzak iharduerak edo ikastaroak bertan behera utzi ahal izango ditu, arrazoi objektiboak direla eta haien jarraipenak zergatirik ez duen kasuetan. Kasu horietan itzuli egingo lirateke ikastaro edo epealdi horri dagozkion kuotak.

36. artikulua.-

Ikastaroetan edo kirol eskoletan izena ematen duten pertsonak honako betebeharrak dituzte:

1. Ikastaroa ematen duen pertsonak hala eskatuz gero, iharduera burutzeko gaitasuna duela ziurtatzen duen sendagilearen ziurtagiri bat aurkeztu beharko du. Ondorioz, ez luke inolako kalte-galerarik eskatzeko eskubiderik izango kirol ikastaroak irauten duen bitartean edozein kalte gertatuz gero.
2. Ezarritako kuotak hilabetea hasi aurretik ordaindu beharko dira. Ez badira epe horretan ordaintzen eskubideak galduko dira.
3. Ikastaroa ematen duen pertsonak emandako jarraibideak bete beharko dituzte.

37. artikulua.-

Ikastaroetan izena ematen duten pertsonak honako eskubideak dituzte:

1. Ikastaroa burutzen diren instalakuntzak erabili ahal izango dituzte.
2. Ikastaroa emateko ordutegiak eta egunak aldatuak ez izateko eskubidea dute, beharrezko ez balitz, eta ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango dute aldaketak ikastaroak irauten duen denboraren %50etik gorakoak baldin badira.
3. Z.K.H.E.ak behar den kirol material guztia eskainiko du, bakoitzaren jantziak izan ezik.
4. Arrazoi objektiboak direla eta ikastaroen jarraipenak zergatirik ez duen kasuetan, erabiltzaileek ordaindutako kopuruaren zati proportzionala berreskuratzeko eskubidea izango dute.
5. Ikastaro guztia, horretarako prestaturiko kirol begirale batek emango du.

IV. titulua

Erreserben arautegiari dagokiona

38. artikulua.-

Z.K.H.E.-ko Zuzendaritzak mugatu ahal izango du astero erabiltzaile bakoitzak erreserba dezakeen ordu kopurua, eskaria handia denean.

39. artikulua.-

Instalakuntzen erreserbak banatzeko erabiliko den sistema hiru hilabetez behin egingo den zozketa izango da. Horrela, urtea honako zatiki hauean banatuko da: urtarrila-martxoa, apirila-ekaina, uztaila-iraila eta urria-abendua.

Instalakuntzen erreserbak erabakitzeko zozketak hiruhilabete bakoitzeko azken ostiraleko eguerdiko 12,00etan izango dira.

Zozketetara bertaratzen direnek baino ez dute parte hartuko, eta talde bakoitzak astero ordu bakarria erreserbatu ahal izango du. Talderen batek bigarren ordu bat erreserbatu nahi izango balu, bertaraturiko guztiek beren lehen aukeraketa egin arte itxaron beharko du, eta gainerako orduak lehenengo itzulian izan den lehentasun ordenari jarraituz erreserbatu ahal izango dira.

Kirol instalakuntza bakoitzerako zozketa bat egingo da. Kasu guztietan lehentasuna izango dute bazkideek egindako erreserbak bazkide ez direnek egindakoen aurrean.

40. artikulua.-

Libre geratzen diren orduen erreserbak Larrako Polikiroldegian dauden bulegoetan egin ahal izango dira, erreserba horiek egiteko ordaindu beharreko kuotak ordainduz.

Ez da onartzen erreserbak telefonoz egiterik ezta ordainketa gerorako uzterik ere.

Erabiltzaile bakoitzak –bazkideak edo bazkide ez denak– gehienez kirol kantxa edo pista bat erreserbatu ahal izango du astero ordu betez, zerbitzuak gehiagorako aukera uzten ez baldin badu.

41. artikulua.-

Ezarritako kuotak erabileragatik ordainduko dira, erreserba egiten den unean. Horrez gain, Zornotzako Kirol Herri Erakundeak erreserbak ordaintzeko sistema berezia ezar dezake instalakuntza jakin batzuetarako.

Erreserbaturiko instalakuntza bat ez erabiltzeak ez du ematen ordaindutako dirua berreskuratzeko eskubiderik.

42. artikulua.-

Zornotzako Kirol Herri Erakundeko Zuzendaritzaren ustez kirol kantxak edo pista edota erabili beharreko materiala egoera txarrean daudelako edozein kirol egitea ezinezko edo arriskutsu denean, Zornotzako Kirol Herri Erakundeko Zuzendaritzak aldatu egin dezake erabiltzaileak erreserbatutako ordua, erabiltzailea ados baldin badago. Erabiltzailea ados ez balego, galdu egingo luke egindako erreserba, eta ordaindutako dirua berreskuratu ahal izango luke.

43. artikulua.-

Erabiltzaile batek erreserbatutako kirol pista edo kantxa erabiltzeko ordua igaro ondoren pista libre badago eta jarraitzeko asmoa badu, erabiltzen jarraitu ahal izango du, horretarako ezarrita dagoen diru kopurua ordainduz.

44. artikulua.-

Kasuren batean, kirol klubek, elkarteek eta federakuntzek egiten dituzten erreserbak aurretik aipaturiko sistema jarraitu gabe egin ahal izango dira, beti ere zerbitzu arautegi honetako 28. artikuluan biltzen dena errespetatuz.

Erreserbetarako egunak eta orduak gainerako talde eta erabiltzaileen beharren arabera ezarriko dira, Z.K.H.E.-ko Zuzendaritzaren txosten lotaraztekoaren ondoren.

45. artikulua.-

Erreserba, baimenduriko pertsonak egin ahal izango du, baimen horren frogagiria eta bazkide karneta eta N.A.N.-a, pasaportea edo antzekoa (edo horien fotokopia) aurkeztuz.

Ordezkaritza bidezko erreserbei buruzko arautegia baliagarria da, baita ere, familiako bazkideentzat. Kasu horretan erreserba, 18 urtetik gorako edozein kidek egin ahal izango du.

Baimenaren frogagirian ordaindu beharreko diru kopurua, eguna, ordua eta erreserbatu nahi den instalakuntza idatzi beharko dira. Alda daitezkeen datu bakarrak egunarena eta orduarena dira, erreserbatu nahi zen ordua eta eguna libre ez badaude. Kasu guztietan lehentasuna izango dute bazkideek egindako erreserbak bazkide ez direnek egindakoen aurrean.

Baimen bakoitzeko erreserba bakarra egin ahal izango da.

V. titulua

Polikiroldegiaren kudeaketaz arduratzen den langilegoari dagokiona

46. artikulua.-

Instalakuntzen mantenimenduan aritzen diren langileek, Laneko Segurtasun eta Garbitasunerako Legeak ezartzen dituen behar guztiak bete beharko dituzte.

47. artikulua.-

Z.K.H.E.-ko Zuzendaritzak izango du kirol instalakuntzak behar bezala izatearen eta, komunak, jantzigelen, dutxen, lorategien eta gune berdeen garbiketaren ardura.

48. artikulua.-

Z.K.H.E.an lanean ari diren langileek, bai Z.K.H.E.-koek zuzenean edo baita zerbitzuen emakida duen enpresakoek, behar bezala identifikaturik egongo dira, janzkera aproposarekin, eta euren izena eta abizena daraman txartela eramango dute.

VI. titulua

Administrazio Orokorrari dagokiona

49. artikulua.-

Urteko edota udako abonuen ordainketak banku helbideratze bitartez egingo dira, erabiltzaileentzako errazagoa dela uste baitugu.

Horretarako, urte bakoitza amaitu aurretik bazkide bakoitzari jakinarazpena igorriko zaio, hurrengo urtean bazkide izaten jarraitu nahi duen ala ez jakiteko. Erantzunik ez balego, Z.K.H.E.ak hurrengo urteko kuota kobratuko luke aipaturiko helbideratze bitartez.

50. artikulua.-

Bazkide txartela eskuratu nahi dutenek hurrengo agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Larrako Polikiroldegiko instalakuntzetan dauden bulegoetan:

- Karneterako argazkia.
- N.A.N.-aren fotokopia.
- Erroldatze ziurtagiria, erroldaturikoen abonua eskatzen baldin badu.
- Familia liburua, familia abonua eskatzen baldin badu.
- Izen-emate orria, behar bezala beteta.
- Gazte Txartelaren fotokopia, hark eskaintzen dituen beherapenez baliatu nahi izanez gero.
- Kuotaren beherapena eskatuz gero, aurreko urteko Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu beharko da, familia unitatea osatzen duten guztiak biltzen dituen, edo, hala balitz, Foru Aldundiaren Ziurtagiria, Errenta aitortpena ez duela zertan aurkeztu behar esanez. Kasu horretan, Amorebieta-Etxanoko Gizarte Laguntzaileak izenpeturiko agiria ere aurkeztu beharko da.
- Elbarria izateagatik kuotarik ez ordaintzea eskatzen baldin bada, elbarritasuna frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da (elbarriarentzat bakarrik).

– Arautegi honetako gainerako artikuluen arabera beharrezko izan daitekeen beste edozein agiri.

51. artikulua.-

Instalakuntzetako erabiltzaileek Z.K.H.E.-ko Zuzendariari aurkeztu ahal izango dizkiote zerbitzuari buruzko kexak, Larrako Polikiroldegiko bulegoetan dauden erreklamazio orriak erabiliz.

Erreklamazioa aurkezten duen pertsonaren datu guztiak dituzten eta sinaturik dauden erreklamazioak baino ez dira kontuan izango.

52. artikulua.-

Z.K.H.E.-ko Zuzendariak erreklamazioak aztertu eta haiei buruzko neurriak hartuko ditu, eta, beharrezkoa balitz, Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordera eramango ditu, aurretik dagokion espedientea irekiz.

53. artikulua.-

Kirol instalakuntzetan, ongi ikusten den lekuan, erabiltzaileek, zerbitzua hobetu asmoz, egin ditzaketen iradokizunak sartzeko buzoiak egongo dira. Z.K.H.E.ak bilduko ditu, zerbitzua hobetu ahal izateko.

54. artikulua.-

Jendaurrean, jendea igarotzen den lekuan, maila desberdinetako erabiltzaileek instalakuntzak erabiltzeko ordaindu behar dituzten diru kopuruak egongo dira ikusgai, eta hala nahi dutenentzat, baita Polikiroldegiaren Zerbitzu eta Ihardunbide Arautegia ere.

55. artikulua.-

Ahalegina egingo da argitaratzen edo jendaurrera azaltzen diren iragarki guztiak elebidunak izan daitezen (euskaraz eta gaztelaniaz).

VII. titulua

Kirol guneak erabiltzeko arauak.

1. atala

Instalakuntzetara sartzeko eta haiek erabiltzeko arau orokorrak

56. artikulua.-

a) Instalakuntzetara sartzeko bazkide karneta erakutsi beharko da, edo bestela, erabili nahi den instalakuntzarako sarrera ordaindu beharko da; salbuespen bakarra 3 urtetik beherako haurrena izango da, arautegi honetako 17. artikuluaaren arabera dohainik sar daitezke eta.

Ondorioz, bazkide guztiek, abonua modua bat edo beste izan eta beherapenak izan edo izan ez, euren karneta erakutsi beharko dute instalakuntzetako sarreran dagoen kontrol gunean. Karneta erakutsi ezean, erabili nahi den instalakuntzarako sarrera ordaindu beharko dute.

b) Instalakuntzako langileek bazkide karneta eskatu ahal izango dute, eta baita erabiltzailearen nortasuna frogatzen duen beste edozein agiri, haren adina ezagutzeko.

c) Jantzizaindegiko takiletan uzten diren objektuen depositoak ez du Z.K.H.E.-ren depositu kontraturik, eta, ondorioz, Z.K.H.E.ak ez du inolako erantzunkizunik bertan uzten diren objektuei dagokienez.

d) Z.K.H.E.-ko instalakuntzetan ospatzen diren ikuskizunetan edo lehiaketetan ikusleek burutzen dituzten ekintzen erantzunkizun osoa, ikuskizunak edo lehiaketak antolatzen dituzten elkarteena izango da.

e) Guztiz debekatuta dago:

1. Erretzea, jatea edo hondarrak uzten dituen beste edozer egitea, horretarako dauden guneetan izan ezik.

2. Instalakuntzetan animaliak sartzea.

3. Arropak jantzigelatik kanpo jantztea edo erantztea.

4. Sexu bateko pertsonak beste sexuko pertsonentzako baino ez diren guneetara sartzea.

5. Beste sexuko pertsonentzako jantzigeletan dutzatzea eta/edo gainerako erabiltzaileen duintasunaren aurkako ekintzak burutzea.

f) Z.K.H.E.-ko instalakuntzetan iragarkiak jarri nahi baldin badira, baimena eskatu beharko zaio Zuzendaritzari, eta hark erabakiko du iragarki horiek jar daitezkeen ala ez.

Aipaturiko arauak ez betetzeak instalakuntzetatik berehala kanporatzea eragin dezake, eta baita bazkide karneta kentzea ere, horrelako portaerak errepikatuz gero eta larritasunaren arabera. Horri buruzko erabakiak Z.K.H.E.ak hartuko ditu.

57. artikulua.-

Z.K.H.E.-ko instalakuntzetan, Arautegi honetan biltzen diren arau orokorrez gain, ondoren, instalakuntza bakoitzerako zehazten diren arauak ere bete beharko dira.

58. artikulua.-

Z.K.H.E.ak udal kirol instalakuntzak ixteko eskubidea du, eta erabiltzaileek ez dute kalte-ordainketarik jasoko. Instalakuntzak ixteko erabakia hartzeko zergati objektiboak egon beharko dira, osasun arrazoiak, ordena publikokoak edo behar bezala justifikaturiko beste edozein motatakoak.

Modu berean, Z.K.H.E.ak, Arautegi honetan aipatzen dena betetzen ez duten pertsonak kanporatzeko eta berriro sartzeko eskubidea du, arau-hauste larria gertatzen denean.

2. atala

Kirol instalakuntza bakoitzeko arauak

1. sekzioa

Igerilekuak erabiltzeko arauak

59. artikulua.- Sarrera:

Eusko Jaurlaritzako ekainaren 7ko 146/88 Dekretuko 2. Xedapen erantsian (1960ko Maiatzaren 31n Gobernazio Ministeritzak emandako Ordenaren 26. artikulua erreferentzia) esaten denaren arabera, 14 urtetik beherako erabiltzaileak ezin izango dira igerilekura sartu 18 urtetik gorako arduradun batekin ez badoaz. Sartuta ere, hurrek haurrentzako igerilekua erabili beharko dute, eta Z.K.H.E.ak ez du inolako erantzunkizunik izango arau hori ez betetzeak eragin dezakeen edozein kalteren aurrean.

Orokorrean bete behar diren arauak gain, ikastaroetan izan ezik, igerilekuko uretan ezin izango dira sartu, euren igeriketa maila kaskarra delako, igeri egiteko orduan arriskua izan dezaketen pertsonak, zainzaileak hala erabakitzen duenean. Zainzaileak esandakoa beteko ez balute, Z.K.H.E.ak ez luke inolako erantzunkizunik izango arau hori ez betetzeak eragin dezakeen edozein kalteren aurrean.

Instalakuntzak erabil ditzakeen pertsona kopuru handiena honako hau da:

- Larrako instalakuntzetako igerileku klimatizatuak: 250 pertsona.
- Ganeko instalakuntzetako kanpoko igerilekuak: *****

60. artikulua.- Betebeharrak:

1.- Igerilekuko gunera bainurako arropakin joan beharko da (bainujantzia, txankletak eta toaila edo txabusina), eta pieza bakarreko bainujantzia erabili beharko da.

Igerilekuko gunea, igerilekua bera inguratzen duen gunea eta igerilekuko jantzigeletatik igerilekura doan bidea da.

2.- Guztiz derrigorrezkoa da txankletak edo bainurako zapatilak erabiltzea dutxetatik igerilekuko gunera dagoen bide guztian eta baita jantzigeletan eta komunetan.

3. Derrigorrezkoa da bainatu aurretik dutxatzea, eta baita pedilubioak erabiltzea eta bainurako txanoa janztea uretara sartzeko. Komenigarria da, baita ere, bainatu ondoren dutxatzea.

4. Guztiz debekatuta dago honako gauza hauek egitea:

1.- Uretara sartzea igerian jakin gabe, igeriketa ikastaroan ari diren ikasleak izanik ikastaroa ematen duen begirale-sorosleak hala eskatuta sartzen diren pertsonak izan ezik.

2.- Gaixotasun kutsakorrek dituzten pertsonak bainatzea, eta baita, besteak kutsa ditzakeen edozein gaixotasun duen pertsona bainu-hartzaileentzako gunera sartzea. Azaleko gaixotasunak azpimarratu behar dira, eta sorosleek edo instalakuntzetako osasun-langileek, baleude, pertsona horiek aztertzeo eskubidea dute.

3.- Ur barruan edozein motako behar fisiologiko egitea, eta baita txistua botatzea edo mukiak kentzea.

4.- Zarata egitea, biraoka aritzea edo gainerako erabiltzaileentzat desatsegina izan daitekeen tonuan hitz egitea, eta baita erabiltzaileen sentiberatasunerako mingarri izan daitezkeen portaera zantarrak izatea.

5.- Igerilekuko gunera kristalezko objektuak sartzea, graduaturiko betaurrekoak eta erlojuak izan ezik, eta baita bainurako beharrezko ez den edozein animalia edo objektu, aletak, urpetik igeri egiteko betaurrekoak, tutuak, baltsak, baloiak, koltxonetak edo beste edozein objektu neumatiko eramatea, begirale-sorosleak horretarako baimena ematen ez baldin badu.

6.- Bainatzerakoan, gainerako erabiltzaileentzat desatsegina izan daitekeen beste edozer egitea, arinetan ibiltzea, jolasten aritzea, korrika egin ondoren uretara saltatzea, etab. adibidez.

7.- Igerilekuaren zabalerako norabidean igeri egitea, igerilekuaren ardura duen begirale-sorosleak horretarako baimena ematen ez baldin badu.

8.- Top-less-ean edo biluzik bainatzea.

9.- Instalakuntzetan animaliak sartzea.

10.- Bainu-hartzaileentzako den igerilekuko gunean jatea, edatea eta erretzea.

11.- Hondarrak instalakuntzan zehar uztea. Horretarako dauden zakarrontziak edo bestelako ontziak erabili beharko dira.

12.- Bainatzeko gunera kaleko arropa edo oinetakoz sartzea. Ikusleek, bisitariak edo laguntzaileak, beraiantzat dauden guneetan baino ez dira ibiliko, eta leku haietara joateko dauden igarobideetatik joango dira.

Kanpoko igerilekuak:

1.- Igerilekuko gunera bainurako arropakin joan beharko da. Igerilekuko gunea, igerilekua bera inguratzen duen gunea da.

2.- Guztiz derrigorrezkoa da txankletak edo bainurako zapatilak erabiltzea jantzigeletatik igerilekuko gunera dagoen bide guztian eta baita jantzigeletan eta komunetan ere.

3. Derrigorrezkoa da bainatu aurretik dutxatzea, eta baita pedilubioak erabiltzea eta bainurako txanoa janztea uretara sartzeko. Komenigarria da, baita ere, bainatu ondoren dutxatzea.

4. GUZTIZ DEBEKATUTA DAGO honako gauza hauek egitea:

1.- Uretara sartzea igerian jakin gabe, igeriketa ikastaroan ari diren ikasleak izanik ikastaroa ematen duen begirale-sorosleak hala eskatuta sartzen diren pertsonak izan ezik.

2.- Gaixotasun kutsakorrek dituzten pertsonak bainatzea, eta baita, besteak kutsa ditzakeen edozein gaixotasun duen pertsona bainu-hartzaileentzako gunera sartzea. Azaleko gaixotasunak azpimarratu behar dira, eta sorosleek edo instalakuntzetako osasun-langileek, baleude, pertsona horiek aztertzeke eskubidea dute.

3.- Ur barruan edozein motako behar fisiologiko egitea, eta baita txistua botatzea edo mukiak kentzea.

4.- Zarata egitea, biraoka aritzea edo gainerako erabiltzaileentzat desatsegina izan dezakeen tonuan hitz egitea, eta baita erabiltzaileen sentiberatasunerako mingarri izan daitezkeen portaera zantarrak izatea.

5.- Igerilekuko gunera kristalezko objektuak sartzea, graduaturiko betaurrekoak eta erlojuak izan ezik, eta baita bainurako beharrezko ez den edozein animalia edo objektu, aletak, urpetik igeri egiteko betaurrekoak,

tutuak, baltsak, baloiak, koltxonetak edo beste edozein objektu pneumatiko eramatea, begirale-sorosleak horretarako baimena ematen ez baldin badu.

6.- Bainatzerakoan, gainerako erabiltzaileentzat desatsegina izan daitekeen beste edozer egitea, arineketan ibiltzea, jolasten aritzea, korrika egin ondoren uretara saltatzea, etab. adibidez.

7.- Igerilekuaren zabalerako norabidean igeri egitea, igerilekuaren ardura duen begirale-sorosleak horretarako baimena ematen ez baldin badu.

8.- Top-less-ean edo biluzik bainatzea.

9.- Instalakuntzetan animaliak sartzea.

10.- Bainu-hartzaileentzako den igerilekuko gunean jatea, edatea eta erretzea.

11.- Hondarrak instalakuntzan zehar uztea. Horretarako dauden zakarrontziak edo bestelako ontziak erabili beharko dira.

12.- Bainatzeko gunera kaleko arropa edo oinetakoz sartzea. Ikusleek, bisitariak edo laguntzaileak, beraientzat dauden guneetan baino ez dira ibiliko, eta leku haietara joateko dauden igarobideetatik joango dira.

61. artikulua.- Beste arauak:

a) Bainu orduetan begirale-soroslea izango da igerilekuko arduraduna, eta errespetua gorde beharko zaio une oro. Igerilekua erabiltzeari eta bertan izan beharreko portaerari buruz esaten duen guztia bete beharko da.

b) Z.K.H.E.-ko Zuzendaritzak igerilekuetako kaleak une bakoitzeko beharren arabera banatuko ditu, eta kale bat edo bi ikastaroetarako edo antolaturiko gainerako ihardueretarako gordeko dira.

c) Z.K.H.E.ak, igerilekuak bidezkoa iruditzen zaion edozein iharduera edo lehiaketarako erabiltzeko eskubidea izango du. Erabiltzaileei behar den aurrerapenez jakinarazi beharko die.

d) Ezin izango da eguzkia hartu top-less-ean edo biluzik.

e) Instalakuntzen barruan, horretarako dauden lekuetan baino ezin izango da jan edo edan.

f) Erabiltzaileek izan dezaketen beste edozein zigor baztertu gabe, igerilekuetako materialak eta hornidurak modu desegokian erabiliz gero, horren arduradunek jasoko duten gutxieneko zigorra eragindako kalteen ordainketa izango da.

2. sekzioa

Sauna erabiltzeko arauak

62. artikulua.-

a) Sauna erabili aurretik, saioa ordaindu beharko da Polikiroldegiko sarreran, edo bestela abonua erakutsi beharko da, dagokion zigilua ezartzeko.

b) Erabiltzaileek, euren sexuari dagozkien instalakuntzak baino ezin izango dituzte erabili, eta debekatuta dago beste sexuarentzako instalakuntzak erabiltzea, haiek hutsik badaude ere.

c) Debekatuta dago erabiltzailearen gorputzak saunako bankuak ukitzea, erabiltzailea eserita edo etzanda dagoen bitartean; horretarako, bi toaila erabiltzea gomendatzen da, bata gorputzak instalakuntza uki ez dezan, erabiltzailea eserita edo etzanda dagoen bitartean, eta bestea lehortzeko eta garbitzeko.

d) Komenigarria da txankletakin ibiltzea bai dutxetan eta baita sauna barruan ere, eta baita dutxatzea saunara sartu aurretik eta irten ondoren.

e) Guztiz debekatuta dago sauna barruan bizarra moztea.

f) Erabiltzaileek nahi beste lurrin sortu ahal izango dute, beti ere gainerako erabiltzaileen baimenarekin, beste erabiltzailerik balego.

g) Debekatuta dago ura ez den beste edozein isurkari zuzenean harrien gainera botatzea, horretarako erabiltzen diren isurkari batzuk alkohol maila altua baitute.

h) Isurkari usaintsu horiek erabili nahi baldin badira, urarekin nahastu ahal izango dira, nahi den usaina lortzeko, beti ere gainerako erabiltzaileen baimenarekin, beste erabiltzailerik balego.

i) Guztiz debekatuta dago zerbitzu hau hipotentsioa duten edo/eta osasun arazoak dituzten pertsonak erabiltzea, kaltegarri izan baitaiteke.

j) Espazio arazoak direla eta, debekatuta dago sauna barruan etzanda egotea aldi berean erabiltzaile bi baino gehiago daudenean.

k) Guztiz debekatuta dago sauna barruan irakurtzea eta baita mukiak kentzea, txistua botatzea edo bestelako behar fisiologikorik egitea.

l) Erabiltzaileek izan dezaketen beste edozein zigor baztertu gabe, igerilekuetako materialak eta hornidurak modu desegokian erabiliz gero, horren arduradunek jasoko duten gutxieneko zigorra eragindako kalteen ordainketa izango da.

3. sekzioa

Muskulazio gela erabiltzeko arauak

63. artikulua.-

a) Muskulazio gela erabiltzeko, lehenbizi Zornotzako Kirol Herri Erakundearen Zuzendaritza Batzordeak onartutako diru kopuruak ordaindu beharko dira, zerbitzuak dituen abonua mota desberdinen maiztasunarekin (hamabostero, hilabetero, hiruhilabetero edo urtero).

b) Lehen abonuekin batera, 1.500 pezeta ordainduko dira deposito edo fidantza gisa. Erabiltzaileak diru hori berreskuratuko du abonua ez berritzeko erabakia jakinarazten duenean, beti ere arautegi honetan aurreikusten den moduan egiten baldin badu.

c) Abonuak hilabete bakoitzaren lehenbiziko zazpi (7) egunen barruan berriztatu beharko dira.

Erabiltzaileak zerbitzua erabiltzen jarraitu nahi ez baldin badu, ordainduriko epea amaitu aurretik jakinarazi beharko du, deposito edo fidantza gisa utzitako dirua berreskuratu ahal izateko. Hori ez bada betetzen, galdu egingo da deposito edo fidantza gisa utzitako dirua.

d) Muskulazio gelan begirale edo arduradun bat egongo da, zainketa eta orientazio lanak burutzeko. Begirale honek entrenamendu programa bat prestatuko du zerbitzua erabiltzen duen bakoitzarentzat. Bete egin beharko da begiraleak esandako guztia.

e) Muskulazio gelara kirolerako oinetako eta jantziekin joan beharko da, eta baita toaila batekin, erabiltzailearen gorputza makinekin kontaktoan egongo den ariketetan erabiltzeko.

f) Erabiltzaileek izan dezaketen beste edozein zigor baztertu gabe, muskulazio gelako materialak eta hornidurak modu desegokian erabiliz gero, horren arduradunek jasoko duten gutxieneko zigorra eragindako kalteen ordainketa izango da.

4. sekzioa

Larrako eta Ixerbekoa Polikiroldegietako kantxak erabiltzeko arauak

64. artikulua.-

a) Estalitako kantxei ahalik eta etekin gehien ateratzeko, ahal den guztietan kortina bitartez bananduko dira, modulu independenteak sortuz.

b) Kantxak erabiltzeko ordutegia Z.K.H.E.-ko Zuzendaritzak ezartzen duena izango da, instalakuntzetako ordutegi orokorraren arabera. Kantxak, beti ere, ezarritako diru kopurua ordaindu ondoren baino ezin izango dira erabili.

c) Kantxa horien helburua, batez ere, taldekako kirolak burutzea izango da, futbitoa, saskibaloia, eskubaloia, boleibola, tenisa eta egungo egiturak aukera ematen duen beste edozein kirol.

d) Gehienez ordubeterako (1) erresebatu ahal izango dira.

e) Herriko ikastetxeek eskola ordutegian erabiliko dituzte kantxa horiek, Z.K.H.E.ak ikastetxeko zuzendaritzarekin sinaturiko komenioan agertzen den akordioaren arabera, eta Amorebieta-Etxanoko Udalaren Hezkuntza Alorrak txostena aurkeztu ondoren.

f) Aipaturiko ikastetxe horiek eskola orduetatik kanpo ere erabili ahal izango dituzte kantxak, Z.K.H.E.ak ikastetxeko Guraso Elkartearen zuzendaritzarekin sinaturiko komenioan agertzen den akordioaren arabera.

g) Kantxetara kirol oinetako eta jantziekin sartu beharko da, eta debekatuta dago gomazko zorurik gabeko oinetakorik erabiltzea.

h) Kaleko oinetako eta jantziekin harmailetan eta jantzigeletan baino ezin izango da egon.

i) Erabili beharreko jantzigelak zein diren atezaindegian edo seinalen bitartez jakinaraziko dira.

j) Erabiltzaileek izan dezaketen beste edozein zigor baztertu gabe, kantxetako materialak eta hornidurak modu desegokian erabiliz gero, horren arduradunek jasoko duten gutxieneko zigorra eragindako kalteen ordainketa izango da.

5. sekzioa

Ganeko tenis pistak erabiltzeko arauak

65. artikulua.-

a) Tenis pistak erabiltzeko ordutegia Z.K.H.E.ak ezarriko du, instalakuntzak duen ordutegi orokorraren arabera.

b) Gehienez ordubeterako (1) erresebatu ahal izango dira.

c) Erabiltzaileek tenisean aritzeko kirol hornidura egokia eraman beharko dute, eta behar beharrezkoa izango da kirol jantziak, erraketak eta teniseko pilotak erabiltzea.

d) Erabiltzaileek izan dezaketen beste edozein zigor baztertu gabe, tenis pistetako materialak eta hornidurak modu desegokian erabiliz gero, horren arduradunek jasoko duten gutxieneko zigorra eragindako kalteen ordainketa izango da.

7. sekzioa

Gimnasioak erabiltzeko arauak

66. artikulua.-

- a) Gimnasioei ahalik eta etekin gehien ateratzeko, ahal den guztietan kortina bitartez bananduko dira, modulu independenteak sortuz.
- b) Kantxetara kirol oinetako eta jantziekin sartu beharko da, eta debekatuta dago gomazko zorurik gabeko oinetakorik erabiltzea. Aldi berean, guztiz debekatuta dago edozein motako oinetakorik erabiltzea Larrako Polikiroldegiko gimnasioan dagoen tatamian.
- c) Larrako Polikiroldegiko gimnasioa Zornotzako Kirol Herri Erakundeak antolaturiko ikastaroetarako erabiliko da, batez ere. Hori dela eta, haren erabilera ikastaroen eta gainerako ihardueren beharren menpe egongo da.
- d) Gimnasioen erabilera librea izango da, baina ikastaro edo iharduera desberdinetako arduradunak, Zuzendaritzaren baimena dutenean, gai izango dira ikastaro edo ihardueretako partaide ez diren pertsonei sarrera galerazteko, haiek irauten duten bitartean.
- e) Gimnasioetako materialak eta hornidurak modu desegokian erabiliz gero, horren arduradunek jasoko duten gutxieneko zigorra eragindako kalteen ordainketa izango da.
- f) Zornotzako Kirol Herri Erakundeak, gimnasioak bidezkoa iruditzen zaion edozein iharduera edo lehiaketarako erabiltzeko eskubidea izango du. Erabiltzaileei behar den aurrerapenez jakinarazi beharko die.

8. sekzioa

Squasha erabiltzeko arauak

67. artikulua.-

- a) Gehienez ordubeterako (1) erreserbatu ahal izango dira.
- b) Erabiltzaileek squashean aritzeko kirol hornidura egokia eraman beharko dute, eta behar beharrezkoa izango da kirol jantziak, raketak eta squasheko pilotak erabiltzea. Debekatuta dago zoru beltza duten zapatilarik erabiltzea.

c) Erabiltzaileek izan dezaketen beste edozein zigor baztertu gabe, squash pistetako materialak eta hornidurak modu desegokian erabiliz gero, horren arduradunek jasoko duten gutxieneko zigorra eragindako kalteen ordainketa izango da.

9. sekzioa

Frontoiak erabiltzeko arauak

68. artikulua.-

a) Frontoietara kirol oinetakoekin eta jantziekin sartu beharko da, praka luzeak barne, eta debekatuta dago gomazko zorurik gabeko oinetakorik erabiltzea.

b) Erabiltzaileek izan dezaketen beste edozein zigor baztertu gabe, frontoietako materialak eta hornidurak modu desegokian erabiliz gero, horren arduradunek jasoko duten gutxieneko zigorra eragindako kalteen ordainketa izango da.

c) Gehienez ordubeterako (1) erreserbatu ahal izango dira.

d) Derrigorrezkoa izango da kaskoa erabiltzea palan, zestan edo erremontean aritzeko.

e) Harmailak babesten dituen sarerik baldin badago, derrigorrezkoa izango da berau jarrita egotea pilotan aritzeko. Sarerik ez balego, instalakuntzaren ardura duen pertsonari jakinaraziko beharko zaio, harmailak babesten dituen sarea jar dezan.

f) Debekatuta dago frontoietan zabalera jokatzeari, eta baita baimendu gabeko pilotak eta tresnak erabiltzea.

g) Kirolariekin doazen pertsonak harmailetan egon beharko dira, eta ezin izango dira jantzigeletara edo kantxara sartu.

10. sekzioa

Solariuma erabiltzeko arauak

69. artikulua.-

- a) Solariuma erabili aurretik, saioaren prezioa ordaindu beharko da Polikiroldegiko atezaindegian, edo bestela abonua erakutsi, dagokion zigilua ezartzeko.
- b) Solariumeko erabiltzaileek saunako jantzigelak erabili ahal izango dituzte arropak jantzi eta erantzeko, eta solariumera toaila edo albornoz batekin estalita joan beharko dira.
- c) Gaixotasun kutsakorrek dituzten pertsonak ezin izango dute zerbitzu hau erabili.
- d) Erabiltzaileek plaka garbitu beharko dute saioa hasi aurretik eta amaitu ondoren. Horretarako, Z.K.H.E.ak utziko dizkion paper erroilua eta isurkari desinfektagarria erabiliko dituzte.
- e) Erreserbak ordu erdikoak (1/2) izango dira, eta ordutegia zehatz-mehatz bete beharko da.

Adostutako orduan joatea ezinezkoa balitz, gutxienez bi (2) ordu aurretik jakinarazi beharko da, ordutegia gainerako erabiltzaileen beharren arabera banatu ahal izateko. Ez bada horrela egiten erreserbatutako saioa ordaindu egin beharko da.

10. sekzioa

Larrako atletismo pista erabiltzeko arauak

69. artikulua.-

- a) Sarrera orokorrak Larrako atletismo pista erabiltzeko eskubidea ematen du.
- b) Ezin izango da pisu, mailu, disko edo xabalina jaurtiketarik burutu Z.K.H.E.-ko Zuzendaritzaren baimenik gabe. Iharduera horiek burutzeko gune berezi bat prestatuko da, gainerako erabiltzaileentzako itxita egongo dena.

c) Erabiltzaileek modu egokian erabili beharko dute atletismo pista, gainerako erabiltzaileei kalterik eragin gabe eta Larrako futbol zelaiaren erabilera oztopatu gabe.

12. sekzioa

Larrako futbol zelaia erabiltzeko arauak

71. artikulua.-

a) Zelaia osorik edo bi zatitan banaturik erabili ahal izango da. Bigarren kasu honetan, aldi berean, futbol-7ko bi norgehiagoka jokatu ahal izango dira.

b) Instalakuntza honen helburu nagusia kirol klub edo elkarteetako kideek futboleko edo futbol-7an aritzea izango da.

c) Gehienez bi (2) ordurako erreserbatu ahal izango da.

d) Herriko ikastetxeek eskola ordutegian erabiliko dute futbol zelaia, Z.K.H.E.ak ikastetxeko zuzendaritzarekin sinaturiko komenioan dagoen agertzen den akordioaren arabera, eta Amorebieta-Etxanoko Udalaren Hezkuntza Alorraren txostenaren ondoren.

e) Aipaturiko ikastetxe horiek eskola orduetatik kanpo ere erabili ahal izango dute futbol zelaia, Z.K.H.E.ak ikastetxeko Guraso Elkartearen zuzendaritzarekin sinaturiko komenioan agertzen den akordioaren arabera.

f) Herriko futbol taldeek ere futbol zelaia erabili ahal izango dute, Z.K.H.E.aren eta klubaren Zuzendaritzaren artean sinaturiko akordioaren arabera.

g) Erabili beharreko jantzigelak zein diren atezaindegian edo seinalen bitartez jakinaraziko dira.

h) Taldeetako ordezkariak edo entrenatzaileak, horretarako dagoen egoera-orian sinatu beharko dute giltzak jasotzen dituztenean, eta baita giltzak itzultzen dituztenean ere. Giltzak euren esku dauden bitartean, ordezkatzeko dituzten klubak izango dira gerta daitekeen edozein kaltereko arduradunak.

i) Erabiltzaileek izan dezaketen beste edozein zigor baztertu gabe, kantxetako materialak eta hornidurak modu desegokian erabiliz gero, horren arduradunek jasoko duten gutxienezko zigorra eragindako kalteen ordainketa izango da.

13. sekzioa

Kirol instalakuntzez gaineko instalakuntzak erabiltzeko arauak

72. artikulua.-

a) Amorebieta-Etxanoko kirol instalakuntzetan, erabiltzaile guztiek jantzigelak, takilak, dutxak eta komunak erabil ditzakete.

73. artikulua.-

Kirol instalakuntzetako edozein erabiltzailek, bere sexurako jantzigelak erabili ahal izango ditu, egin behar duen kirolean aritzeko kirol jantziak jantzeko.

Takilak ere egongo dira, instalakuntzetako erabiltzaileek arropak eta gainerako objektuak gorde ditzaten. Erabiltzaileak takilako giltza gorde beharko du barruan utzi dituen objektuak jaso arte.

Z.K.H.E.ak ez du inolako erantzunkizunik izango takiletan dauden objektuak desagertzen badira edo kalteak izaten badituzte.

Takiletako erabiltzaileak izango dira giltzaren arduradunak, eta berau galduko balitz, 1.000 pezeta ordaindu beharko liokete Z.K.H.E.ari.

Giltz horiek ezin izango dira kirol instalakuntzetatik atera, atezaindegian dagoen pertsona arduradunak horretarako baimena ematen ez baldin badu.

74. artikulua.-

Jantzigelak eta dutxak jantzi-erantzeko eta dutxatzeko erabiliko dira, eta erabiltzaileek ahalik eta ondoen zaindu beharko dituzte, egoera onean egon daitezen.

75. artikulua.-

Kirol instalakuntzetan janari-edariak saltzen dituzten makinak daude, eta erabiltzaileek eta bisitariak erabili ahal izango dituzte.

Janari-edari horiek ezin izango dira hartu kirolean aritzeko kantxetan, igerilekuko gunean ezta debekua adierazten duten lekuetan ere.

Eusko Jaurlaritzako Drogamenpekotasunen Legeak ezartzen duenaren arabera, debekatuta dago alkohol-dun edariak eta tabakoa saltzea, horretarako proposak diren gunetan izan ezik.

76. artikulua.-

Kirol instalakuntzetan botikina dago lehenbiziko zainketak burutzeko, istripuei eta kirol lesioei aurre egiteko behar den materialarekin.

77. artikulua.-

Erabiltzaileren batek galdu eta norbaitek aurkitzen dituen objektuak instalakuntzetako arduradunari eman beharko zaizkio. Arduradunak megafonia ekipotik aurkikuntzaren berri emango du, jabea dela frogatzen duenak galdutakoa berreskura dezan. Arduradunak galdutako objektuen erregistro liburuan idatziko ditu objektuari buruzko datu guztiak, eguna eta ordua, aurkitu duen pertsonaren izena eta datuak, etab.

Urtebeteko epea igaro ondoren galdutako objektuaren jabea agertzen ez bada, Udalak bando bitartez jakinaraziko du, eta beste bi hilabeteko epea egongo da jabea dela frogatzen duenak galdutakoa berreskura dezan. Epe horretan ere jabea agertzen ez bada, Udalak objektua desegin edo saldu egingo du, eta ateratako dirua, herrian aritzen den ongintza erakunderen bati emango dio.

X. titulua

78. artikulua.-

Titulu honetan, erabiltzaileek kirol instalakuntzak kultur ihardueretarako, ezohiko kirol ikuskizunetarako edo kirolez kanpoko ihardueretarako erabiltzeko orduan dituzten eskubideak, beharrak eta bete behar dituzten baldintzak arautu nahi dira.

79. artikulua.-

Pertsona fisiko edo juridikoek, kirol elkarteek edo gainerako erakundeek, eguneroko kirol ihardueretatik kanpoko iharduerak burutzeko ere erabili ahal izango dituzte kirol instalakuntzak, arautegi hau bete eta erabilera horretarako ezartzen diren diru kopuruak ordaintzen eta baldintzak betetzen badituzte.

79. artikulua.-

Kirol instalakuntzak kirol ihardueretatik kanpoko iharduerak burutzeko alokatu ahal izateko erabili behar den prozedura honako hau izango da:

1.- Instalakuntzak egun eta ordu jakin batean erabiltzeko eskaria aurkeztu beharko da, Z.K.H.E.-ko Lehendakariari bideratua. Eskari horretan eskaera burutzen duen enpresaren (izena, IFK, ordezkari legala, helbidea, telefono zenbakia...) edo pertsona fisikoaren edo elkartearen datuak egon beharko dira. Derrigorrezkoa izango da, baita ere, ekintzaren xede nagusia aipatzea, eta musika festibala baldin bada, parte hartuko duten abeslari edo talde guztiak aipatu beharko dira.

2.- Z.K.H.E.-ko Zuzendaritza Batzordeak edo Lehendakariak, Zuzendaritza Batzordea iharduera burutzeko eskatutako egunaren aurretik biltzen ez baldin bada, ahalik eta epe laburrenean emango du erantzuna, idatziz. Eskaria onartzen baldin bada, eskaria egin duenak bost (5) eguneko epea izango du fidantza gisara ezarri den diru kopurua ordaintzeko, erreserba burutua egon dadin.

Epe horretan ez baldin bada fidantzaren dirua ordaintzen, erreserba baliogabetu egingo da, eta instalakuntza libre geratuko da.

3.- Eskatzaileak ekintza bertan behera uzten baldin badu fidantza ez da itzuliko.

Ekintza burutu ondoren instalakuntzak ez duela inolako kalterik jaso ikusten baldin bada, fidantza itzuli egingo da.

4.- Ikuskizuna baino hamabost (15) egun lehenago, antolatzaileak edo eskatzaileak honako gauza hauek egin beharko ditu:

a) Larrako Polikiroldegiko bulegoetara joan eta instalakuntzaren alokairurako kontratua sinatu.

b) Eskudiruz, transferentziaz edo adosturiko taloi bitartez, instalakuntzaren alokairurako ezarritako diru kopurua ordaindu beharko du.

c) Ekintza horretarako kontrataturiko erantzunkizun zibileko poliza aurkeztu beharko du, eta baita poliza hori ordainduta dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

5) Ikuskizuna baino bost (5) egun lehenago, antolatzaileak edo eskatzaileak honako gauza hauek egin beharko ditu:

a) Larrako Polikiroldegiko bulegoetan Eusko Jaurlaritzako Joku eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako baimenaren kopia utzi beharko du.

b) Bilera tekniko bat izan beharko du Z.K.H.E.-ko Zuzendariarekin.

6.- Bi alokairu mota egongo dira:

a) Egun erdiko alokairua: eskaturiko eguneko goizeko 9:00etatik egun bereko gauetako 21:00etara luzatuko dena.

b) Egun osoko alokairua: eskaturiko eguneko goizeko 9:00etatik hurrengo eguneko eguerdiko 14:00etara luzatuko dena.

Mota bakoitzak tarifa desberdina izango du. Horrela, eskatzaileak egun erdiko alokairurako ezarritako ordutegia gainditzen badu, egun osoko alokairua ordaindu beharko dio Z.K.H.E.ari.

Aurrean aipaturiko amaiera orduetarako instalakuntza hutsik egon beharko da, eta garbiketarako prest.

7.- Instalakuntzetan burutu beharreko ekintzarako behar diren baimenak, lizentziak eta antzekoak lortzeko ordaindu beharreko guztia antolatzailearen esku egongo da, eta baita egile eskubideen eta estatuko, autonomia erkidegoko, probintziako edo udalerriko zerga mota guztien ordainketa.

8.- Z.K.H.E.aren kontura izango dira argi indarra, garbiketa eta baita instalakuntzako langileei, instalakuntza alokatuta dagoen bitartean, ordaintzen zaizkien orduak.

Ekintzak izan ditzakeen beste gastu guztiak (oholtza, aulkiak, iragarkiak, zainketarako langileak, etab.) antolatzaileak ordaindu beharko ditu.

9.- Z.K.H.E.ak ekintzaren edo ikuskizunaren arduradun bat ezarriko du, eta haren lana iharduera burutzeko ireki behar diren ateak irekitzea eta ixtea izango da. Antolatzailearen esanetara egongo da, ihardueran zehar gerta daitekeen edozein arazo konpontzen laguntzeko.

10.- Antolatzailea izango da ordena publikoaren eta kontrataturiko ihardueraren antolakuntzan parte hartzen duten kide guztien eta ikusleen portaeraren arduraduna.

11.- Antolatzaileak ordainduko ditu instalakuntzetan gerta daitezkeen kalte guztiak.

12.- Antolatzaileak iragarki pankartak edo kartelak jartzen baditu, kendu egin beharko ditu ekintza amaitzen denean.

13.- Instalakuntzetan ezin izango da sartu instalakuntza horretarako ezarrita dagoen jende kopurua baino ikusle gehiagorik.

14. Z.K.H.E.ak instalakuntzak ez uzteko eskubidea du, utziz gero aurretik egindako beste emakida bat kaltetzen baldin bada.

XI. titulua

Zigor erregimena

Arau hausteak eta zigorrak

80. artikulua.-

Erabiltzaileek Arautegi honetan biltzen diren behar guztiak bete beharko dituzte, horiek ez betetzeak zigorra eragingo duelako. Horrez gain, honako zigor hauek ere ezarriko dira:

81. artikulua.-

Instalakuntzako arduradunek behar bezalako jokaera ez duten pertsonak ohartarazteko eta baita kanporatzeko eskubidea dute.

82. artikulua.-

Arau hausteak larriak edo arinak izango dira, hurrengo sailkapenaren arabera:

a) Arau hauste larriak:

1. Instalakuntzetako hornidurak, kirol materiala edo erabiltzaileen edo ikusleen objektuak lapurtzea edo nahita apurtzea.

2. Iskanbilak edo eraso fisikoak sortzea edo haietan parte hartzea kirol instalakuntza barruan.

3. Igerilekuko ura nahita zikintzea edo igerilekuko uretara edozein motatako objektuak botatzea.

4. Instalakuntzako arduradunari edo langileei eraso fisikoa edo ahozkoa egitea.

5. Arduradunek, zerbitzuak eta instalakuntzak modu egokian funtziona dezaten ematen dituzten argibideei behin eta berriro jaramonik ez egitea.

6. Zigor hauste arin berarengatik birritan baino gehiagotan zigortua izatea.

b) Zigor hauste arinak:

1. Instalakuntzetan tabakoa erretzea edo alkoholdun edariak edatea, horretarako dauden guneetatik kanpo.

2. Kirolean aritzeko guneetan, igerileku gunean eta hori egitea debekatuta dagoen gainerako lekuetan edariak edo janariak hartzea.

3. Instalakuntzetan edozein animalia edo baimendu gabeko objektuak sartzea.

4. Instalakuntza bakoitzeko erabilera arauak behin eta berriro haustea.

5. Kirolean aritzeko guneetan eta haien inguruetan edariak edo janariak, latak, beirazko ontziak, etab. sartzea.

6. Beste sexuarentzako bakarrik diren guneetan sartzea.

7. Horretarako ez diren lekuetan jolasean edo kirolean aritzea, eta ihardunbide egokia aldatzea, gainerako erabiltzaileei, ikusleei, eta abarrei errespetua galduz.

8. Instalakuntzetan txistua bota eta haiek eta kirol hornidura zikindu edo gaizki erabiltzea.

9. Kirolean aritzeko guneetan kirol ekipamendua ez erabiltzea.

10. Arautegi honetan ezartzen diren gainerako debekuak, baldintzak edo beharrak ez errespetatzea.

Falta horiek gertatzen direnean kontuan izango dira erantzunkizun maila alda dezaketen zirkunstantzia astungarriak, aringarriak edo salbuesleak. Horiez gain ekintza judizial guztiak eraman ahal izango dira aurrera, Zornotzako Kirol Herri Erakundeak zigor hausteetan erantzunkizun penalak edo zibilak antzematen dituenean.

83. artikulua.-

Arau hausteak artikulua honetan aipatzen den moduan zigortuko dira.

a) Arau hauste larrien ondorioz honako zigor hauek ezarri ahal izango dira:

1. Behin betirako kanporaketa, bazkide eta erabiltzaile gisa dauden eskubide guztiak eta baita ere ordaindutako diru kopuruak galduz, eta berriro onartzea debekatuz.

2. Behin behineko kanporatzea, 6 hilabetez, bazkide eta erabiltzaile gisa dauden eskubide guztiak galduz zigorrak irauten duen bitartean.

3. Bi arau hauste larri edo gehiagoren ondorioz instalakuntzak kalteak jasotzen baditu, zigorrarekin batera, eragindako kaltearen konponketa ordaindu beharko da. Zigortuak ordaintzen ez badu, ordainketa premiamendu bidez eskatu ahal izango zaio, Udalaren bitartez.

4. Arau hauste eta zigor larriek 4 urteko epean preskribituko dute.

b) Arau hauste arinen ondorioz honako zigor hauek ezarri ahal izango dira:

1. Behin behineko kanporaketa, 15 egunez gehienez, eta epe horretan bazkide karneta kendu.

2. Bazkide ez diren erabiltzaileen kanporaketa eta sartzeko debekua, 15 egunez gehienez.

3. Ohartarazpen eta errieta publikoa edo pribatua.

4. Arau hausteen ondorioz instalakuntzak kalteak jasotzen baditu, zigorrarekin batera, eragindako kaltearen konponketa ordaindu beharko da. Zigortuak ordaintzen ez badu, ordainketa premiamendu bidez eskatu ahal izango zaio.

5. Hiru hilabeteko epean gertaturiko hiru arau hauste arinek zigor larria eragingo dute. Arau hauste eta zigor arinek hiru hilabeteko epean preskribituko dute.

6. Arau haustearen larritasunaren araberako isuna jarri ahal izango da, 1.000 pezeta eta 20.000 pezeta artekoa.

84. artikulua.-

Materiala apurtu, galdu edo beste edozein kalte eraginez gero, kasu bakoitzean erabakiko den zigor ekonomikoarekin zigortu ahal izango da.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa

Arautegi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, herri mailako legediaren arabera, eta aldatzea edo indarrrik gabe uztea erabakitzen den unera arte izango da baliagarri.

Bigarrena

Z.K.H.E.aren Zerbitzu Arautegi honetan aurreikusten ez diren kasuetan, kirol alorrean dagoen arautegia jarraituko da, eta zehatzago esateko, Kirolaren Legea eta Kirol Disziplinari buruzko abenduaren 23ko 159/1992 Erret Dekretua, Herri Erregimeneko Baseen Legea, Estatuko Kontratu Legea, Estatuko Kontratazio Erregimena, Herri Korporazioetako Zerbitzu Arautegia eta indarrean dauden gainerako arautegiak.

Amorebieta-Etxanon, 1998ko martxoaren 6an